



## Hirugarren saioa.

### "Elkarrekin.org (II)" atariaren alderdi pribatua ezagutzea.

#### Taldeen erabilera.

Helburua: Elkarrekin-eko talde kontzeptua eta horren erabilera ezagutzea, horrek esan nahi duen guztiarekin: interes berberak dituzten irakasleen arteko elkarlana Internet bidez, lan horren erabilera eta eraginkortasuna eta abar.

#### Jakin beharrekoa:

- Elkarrekin-en erabiltzaile bat alderdi pribatuan sartzen denean (edo menuko **Taldeak** aukera sakatzen duenean), bere taldea(k) ikusten d(it)u:

Talde hauetan duzu harpidetza eginda.

Beste talderen bat ikusi nahi baduzu (alta eskatzeko aukera ematen duena), "Bat egin taldearekin" aukera klikatu.

Azken konexioa: 2005/05/17 - 11:37

taldeetan baja eman

bat egin taldearekin

Módulo formación: TIC y Educación

• Foro: Módulo formación TIC

Foroa

Taldearen izena

Karpeta

Agenda

Txata

- Taldearen izena letra lodiz agertzen da. Eta hauek dira eskura dituen baliabideak (taldeko kideek bakarrik erabiltzekoak):

- Foro bat edo batzuk, taldearen izenaren azpian letra normalez idatzita.

- Karpeta bat

- Agenda bat

- Txat bat

- Foroa erabiltzeko, bere izena klikatu:

sekuentziatuta

dataren arabera

egilearen arabera

[Atzera] [Ekarpen berria]

#### Ikastaroa. 1. astea

→ [Nuestras presentaciones](#) (2003/11/25)

Víctor Bermejo González [victor@qipuztik.net](mailto:victor@qipuztik.net)

→ [Re:Nuestras presentaciones](#) (2003/11/26)

acaranvives Curso Coordinadores [acaranvives@edebedigital.com](mailto:acaranvives@edebedigital.com)

→ [Josi Re:Nuestras presentaciones y aportaciones `ricas`](#) (2003/11/26)

josi sierra orrantia [josi@berrikuntza.net](mailto:josi@berrikuntza.net)

→ [Re:Nuestras presentaciones](#) (2003/11/25)

Koldo Etxebarria Arabaolatza [koldo@qipuztik.net](mailto:koldo@qipuztik.net)

- Ekarpinak egiteko, **[Ekarpen berria]** sakatu eta bi eremuak bete behar ditugu:



- Jada egindako ekarpen bat irakurtzeko, nahikoa da izenburua sakatzea:
 

**Ikastaroa. 1. astea**

→ [Nuestras presentaciones \(2003/11/25\)](#)

Víctor Bermejo González [victor@qipuztik.net](mailto:victor@qipuztik.net)

No sé si alguien volverá a entrar en este foro, pero me gustaría comentar las impresiones que hemos tenido sobre las presentaciones que hemos hecho.

Para empezar, daré mi opinión:

Yo me he quedado gratamente sorprendido de la cantidad de cosas nuevas que he sabido de compañeros con los que llevo trabajando varios años y que no sabía.

Por supuesto que algunos/as han sido mas escuetos, más políticamente correctos y no se han abierto tanto, pero aún y todo me ha encantado, y además me lo he pasado muy bien, leer las presentaciones y comentarios que todos hemos aportados.

¿Y tu que opinas?

Saludos

Víctor

[\[erantzun\]](#)
- [\[erantzun\]](#) sakatuz, esku-hartze horri erantzungo diogu.
- Taldekideek besteen eskura laneko dokumentuak edo beste edozein fitxategi jartzeko balio dute karpetek. Taldearen moderatzailea da lan guztia karpeta bakar batean egin behar den edo gehiagotan antolatuko den erabaki behar duena. Taldeko kideek fitxategiak “behera kargatu” eta nahi dituztenak “gora karga” ditzakete.
  - Karpetetara sartzeko, sakatu.
 

**Karpetak**

[Atzera] [Fitxaren alta]

[Hasierako menua](#)

[Ikastaroa. 1. astea](#) - 2004/08/12

[Ikastaroa. 2. astea](#) - 2004/08/12

[Ikastaroa. 3. astea](#) - 2004/08/12

[Ikastaroa. 4. astea](#) - 2004/08/12
  - Karpetarik ez badago, zuzenean fitxategiak ikusiko ditugu; karpetak badaude,




berriz, nahikoa da karpeta baten izena sakatzea bertan sartzeko:

- [Hasierako menua/ Ikastaroa. 1. astea](#)
- [Actividad: Caza del tesoro - 2003/11/13](#)
- [Presentación del curso - 2003/11/13](#)
- [Fortaleza y debilidades del Trabajo Cooperativo - 2003/11/13](#)
- [Gui ade presentaciones. Foros - 2003/11/13](#)
- [Puzzle colaborativo. - 2003/11/13](#)

- Fitxategi baten izena klikatzean, edukiaren laburpen txiki bat eta hura behera kargatzeko esteka bat ikusten dira:



- Fitxategi bat “gora kargatu” eta taldeko gainerako kideen eskura jartzeko, ondokoa klikatu behar da:



- Eta dagokion fitxa bete behar da:



FITXAREN ALTA

Izenburua

Azalpena

Lotura

Agiria

- Ikus daitekeenez, fitxategi bat, esteka bat edo biak sar daitezke.
- Agendak (talde bakoitzean bakarra), izenak berak adierazten duenez, taldearentzat garrantzitsuak diren gertaerak, barnekoak nahiz kanpokoak, adierazteko balio du.
  - Agendan sartzeko, sakatu behar da:
 

Agenda pribatua

[Atzera]

Maizta 2005

al	ar	az	og	or	lr	ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Astea: 2005/05/17 - 2005/05/23
  - Egun bat klikatzean, egun horretako ekitaldiak ikusten dira.
  - aukerak agendan ekitaldi berri bat sartzeko balio du.
- Txatak foroko kideen artean “elkarrizketak” izateko balio du. Jakina, eguna eta ordua adostu behar dira txat bat egiteko, esku-hartzaile guztiek *on-line* egon behar dute-eta.
  - Txatean sartzeko, sakatu:



Txata

Une honetan ez dago mezurik.

1 Erabiltzaileak  
 José Orenge Vera

Bidali
Itxi

○ Nahikoa da esku-hartzea idaztea eta Bidali sakatzea. Eremu zurian, txatean dauden pertsona guztien (taldekideen) esku-hartzeak agertuko dira.

Egin beharreko lana:

- 1.- Jada egin da lan bat foroa erabiliz. Haren aukerei, lanaren abantailei eta topatutako zailtasunei buruz eztabaidatzea da asmoa.
- 2.- Gainerako kideentzat ustez baliagarria izan daitekeen edozein motatako fitxategi bat aukeratu eta karpetara edo karpetetara kargatu. Aldez aurretik, komenigarria da guztion artean egokiena izan daitekeen karpeta-egitura erabakitzea, ikastaroko irakasleak/moderatzaileak hura sor dezan.
- 3.- Saio hau amaitu eta hurrengo hasi bitarteko egun bat eta ordu bat zehaztu txat bat egiteko. Txat horretako gai nagusia eta funtzionamendu-arauak orain adostea komeni da, esperientzia eraginkorra izan dadin.

**Talde bateko moderatzailearen funtzioa.**

Helburua: talde bateko moderatzaileak betetzen duen funtsezko funtzioari buruz sarrera/hausnarketa labur bat egitea.

Jakin beharrekoa:

- Elkarrekin-en, bi funtzio ditu talde bateko moderatzaileak:
  - Taldearen beharrak kudeatzea:
    - Taldeko erabiltzaileen altak, bajak eta gertakariak.
    - Taldeak oinarrizko lau tresnak (foroak, karpetak, agenda eta txata) izan behar dituen ala ez erabakitzea.
    - Haietako bakoitzaren eguneroko jarduerak antolatzea eta zaintzea.
  - Talde-lana dinamizatzea. Hau da, zalantzarik gabe, zereginik garrantzitsuena, horren baitan baitago ongi funtzionatzea eta erabiltzaileentzat benetan baliagarria izatea.

Egin beharreko lana:

Irakasleak banatuko dizuen DecalogDinamizTelem.pdf dokumentua irakurri eta, hura eskuan hartuta, bertan aipatzen diren moderatzaile onaren dohainei buruzko bateratze-lan txiki bat egitea.

Gehiago jakiteko:

Talde bat martxan jarri nahi duten pertsonak taldeko moderatzailearen eskuliburua, hark duena, irakur dezakete.  
(Hemen ere aurki daiteke: ¡[Error!Marcador no definido.](#)!).



**Teleprestakuntza-plataforma.**

**nire ikastaroak**

 **Ikastaro irekiak**

**Gaur egungo ikastaroak**

**Hot Potatoes** (HotPotatoes1)  
 Hasiera: 2005/05/02 Amaiera: 2005/12/31  
 Tutorea: Txomin Balza Murguia

**HyperSnap DX** (HyperSnap1)  
 Hasiera: 2005/05/02 Amaiera: 2005/12/31  
 Tutorea: JOSE MARI JUAN FONSECA

**Búsquedas en Internet** (Las Búsquedas en Internet 1)  
 Hasiera: 2005/04/12 Amaiera: 2005/12/31  
 Tutorea: Víctor Bermejo González



**Helburua:** Elkarrekin-ek barne hartzen duen teleprestakuntza-plataformaren oinarriko ezaugarriak ezagutzea. Nola ikus daitezke egin daitezkeen ikastaroak? Nola matrikulatu horietako batean? Nola jarraitu ikastaro bat?

Jakin beharrekoa:

- Ikastaro bat egiteko, bi aukera daude:
  - *Elkarrekin-eko kideak*. Identifikatu ondoren, “Prestakuntza” aukera erabili behar da.

Ikastaro bati ekiteko, matrikulatuta gauden ikastaroaren izenaren gainean klikatu, “Gaur egungo ikastaroak” aukeraren azpian.

Mugatuta ez dauden eta egin daitezkeen ikastaroak ikusteko (ikus, hurrengo ataleko azalpena) eta eskatzeko, “Ikastaro irekiak” aukera klikatu behar da:



ikastaroren batean izena eman

IKASTARO IREKIAK

**Búsquedas en Internet**

Con este minicurso "**Busquedas en Internet**" se pretende dar a conocer las nociones básicas y más habituales que debemos utilizar para sacar el máximo provecho a los buscadores de Internet.

Aunque se centra en el más popular de los buscadores **Google**, también se comentan otros muy populares, como **Yahoo** o **Altavista**. También hay un espacio para buscadores en euskera como **Kaixo** o **Aurki**. Y por último, se muestran alguno de los mejores metabuscadores así como buscadores especializados, sobre todo los dedicados a educación.

	Talde irekiak	Hasiera	Amaiera	Tutorea	Azalpena
<input type="radio"/>	Las Búsquedas en Internet 2	16/06/2005	30/07/2005	Víctor Bermejo González	

**Clic Fácil**

Una sencilla introducción al Clic.

Matrikulatu nahi dugun ikastaroa edo ikastaroak aukeratu, eta “Onartu” sakatu behar da.

“Izena emateko zain dauden ikastaroak” aukeraren azpian, erabiltzaileak eskatu dituen ikastaroak, matrikula egiaztatzeko dutenak, agertzen dira.

- *Elkarrekin-eko kide ez diren pertsonak.* Kasu horietan, prestakuntza-plataformara sartzen da zuzenean, <http://www.elkarrekin.org/gela> helbidetik:

Jada ikastaro batean matrikulatuta dauden edo lehenago ikastaro batean matrikulatuta egon diren erabiltzaileek erabiltzaile-izenarekin eta pasahitzarekin sartu behar dute plataforman, eta, han, beren ikastaroetan lan egin edo beste batzuk eska ditzakete, Elkarrekin-eko erabiltzaileek bezala.

Gure plataforma inoiz erabili ez duten erabiltzaileek “hemen” hitza sakatu behar dute zein ikastaro dauden jakiteko. Agertzen diren ikastaroen formatua Elkarrekin-en erabiltzaileei agertzen zaienaren antzekoa da; desberdintasun bakarra dago: ikastaro bat eskatzean, datuak eskatuko zaizkiola erabiltzaileari.



ikastaroren batean izena eman  
[Atzera]






PRESTAKUNTZA-ERABILITZAILEAREN ALTA	
Izena	<input type="text"/>
1. abizena	<input type="text"/>
2. abizena	<input type="text"/>
Ikastetxea	<input type="text"/>
Helbide elektronikoa	<input type="text"/>
Pasahitza	<input type="text"/>

Eskaera horren ondoren, mezu bat jasoko da, ikastaroa egiteko onarpena eta datuak egiaztatzeko.

Ikasle bat ikastaro batean sartzen denean (atariko kide bada Elkarrekin-etik eta ez bada [www.elkarrekin.org/gela](http://www.elkarrekin.org/gela) helbidetik), honen antzeko zerbaite aurkitzen du:

Ezkerreko aldeak aukera ematen du ikastaroaren unitateetako edukietan sartzeko.

Goiko ikonoak hauei dagozkie:

-  Tutorea. Taldearen tutoreari mezu bat bidaltzeko.
-  Ikasleak. Talde horretako ikasle bati edo batzuei mezu bat bidaltzeko.
-  Ikasle talde honen txaterako sarbidea.
-  Ikastarotik irtetea.
-  Ikastaroaren aurkibidera joatea.

- Badira, halaber, tutoretza-izaera libreko ikastaroak ere; hau da, tutorerik gabeak direnak eta edozeinentzat sarrera librea dutenak, inolako eskaerarik edo baimenik gabe. Horretarako:
  - Interneteko helbide honetara jo behar da: [www.elkarrekin.org/gela](http://www.elkarrekin.org/gela).
  - Erabiltzaile-izen gisa [gela@gipuztik.net](mailto:gela@gipuztik.net) idatzi behar da.
  - Eta pasahitz gisa: gela.
 Une horretan baimenik gabe egin daitezkeen ikastaro guztiak "Gaur egungo ikastaroak" atalean agertuko dira.



Egin beharreko lana:

- 1.- Aukera ezazu tutoretzarik gabeko edozein ikastaro eta jarraitu. Ikus ezazu zer aukera ematen dituen –foroak, mezuak eta abar barne–.
- 2.- Ikus itzazu Elkarrekin-en baretik egin daitezkeen ikastaroak eta eskatu irakasleak adierazten dizuna.

Gehiago jakiteko:

Teleprestakuntza-plataforma bera eta ikastaroen sortzaile eta tutore gisa horri eman dakioken erabilera hobeto ezagutzeko, ikus irakasleak hari buruz duen eskuliburua. <http://www.elkarrekin.org/elk/ElkPlatFormManual.pdf> helbidetik ere behera karga daiteke.



**Webgune-sortzailea.**

Helburua: webgune-sortzailea erabiltzen ikastea, webgune bat sortzeko eta hori Elkarrekin-en kokatzeko. Erreminta horrek eskaintzen dituen era guztietako aukerak ikustea.

Jakin beharrekoa:


- Izenak adierazten duenez, Elkarrekin.org atarian integratutako webgune-sortzaileak webguneak modu errazean sortzeko balio du; baita web orrien diseinuari, haiek sortzeko moduari, html hizkuntzari eta abarrei buruz inolako ezagutzarik ez duten pertsonentzat ere.  
Argi izan behar da, garrantzitsua baita, sortutako webguneak hitzaren zentzu klasikoan hartutako web orriak izateaz gain, foroak, baliabideen liburutegi bat (era guztietako materialak) eta albisteak argitaratzeko sistema bat (nobedadeak) ere izan ditzakeela (egileak hala nahi badu). Hori guztia dela-eta, sortutako webguneak benetako topagune telematikoak dira lan taldeentzako. Atari txiki izatera irits daitezke.
- Webgune-sortzailearen aukerei begirada orokor eta azkar bat emateko, ikus: <http://www.elkarrekin.org/web/GenWeb/>.
- Webgune bat sortzeko, lehenbizi haren ezaugarri orokorrak erabaki behar dira:
  - ‘Webgune-sortzailea’ aukeratu ezkerreko menu berdetik.



- Ondoren, lanaren zatia honetara aldatuko da:



- Jada egindako webgunerik badago, zerrenda batean agertzen dira, eta eskuinera dagoen geziak haiek kudeatzeko, hobetzeko eta abarretarako aukera ematen du.



- Webgune berri batekin hasteko, sakatu [Webgunea sortu] goiko esteka.



Webguneak sortzeko tresna

[Atzera]

ALTA WEB

Izenburua:

Azalpena:

Helbide elektronikoa:

Helbidea Web:

Idatzi hemen hizki kate bat, letra xehez, tartarik, komarik edo apostroferik gabe, webgunea eta horren HTTP helbidea identifikatzeko. Adibidez, nombreweb idatziz gero, webguneak <http://www.elkarrekin.org/web/nombreweb> izango du helbide.

Hizkuntza Web:  ▼

Logotipoa:

Diseinua WEB:

- Hor, atal hauek bete behar dira:
  - Izenburua. Interneteko nabigatzailearen izenburuaren barran (lehena) agertuko dena.
  - Deskribapena. Webgunearen azalpen-laburpen txiki bat.
  - E-posta: Egilearen helbide elektronikoa.
  - Webgunearen helbidea. Hemen zehazten da Internetetik zuzenean webgunera sartzeko helbidea: hitz bat idatzi behar da, eta hitz hori izango da webgunearen helbidea osatzeko <http://www.elkarrekin.org/web/> delakoaren atzean gehitu behar dena. Adibidez, guk **gela** idatzen badugu, webgunearen helbidea <http://www.elkarrekin.org/web/gela> izango da. Aukeratutako hitza jada erabilia bada, beste hitz bat proposatu beharko dugu. Hemen idatzen dugun hitzak letra xehez eta azenturik gabe egon behar du.
  - Webaren hizkuntza. Euskara edo gaztelania. Hemen aukeratutako hizkuntza izango da webguneak bere mezuetan (egileak sartzen duen edukia edozein izanik ere) erabiliko duena.
  - Logotipoa. Webgunearen goian, ezkerrean, agertuko dena. Gutxi gorabehera, 120\*120 pixeleko grafiko bat izan behar du, gif edo jpg formatuan.
  - Webgunearen diseinua. Webgunerako nahi dugun diseinu mota aukeratu behar da. Atal honetako gainerako esparruak bezala, edozein unetan aldatu ahal izango da gero.
  - Webgune mota. Jada esan dugunez, hiru webgune mota daude: publikoa, baimenik gabeko pribatua eta baimendun pribatua. Hemen aukeratu da. Kasu honetan, "Publikoa" aukeratu.
  - Atalak. Hemen, gure guneak zer atal (nabigatzekoak diren edukiez gain) izatea nahi dugun erabakitzen da (Foroak, Nobedadeak eta Baliabideak).

Página 26 de 51



- Webgunearen edukiak sortzeko, prozesu honi jarraitu behar zaio:
  - “Sortu” ondoren, webgunea zerrendan agertuko da:

Emaizta: 2 webs

Ezabatu	Erabiltzaileak (+)	Izenburua	Helbidea
		Elkarrekin: Estadistikak - Estadísticas	<a href="http://www.elkarrekin.org/web/ElkEst">http://www.elkarrekin.org/web/ElkEst</a>
		Generador de webs en Elkarrekin	<a href="http://www.elkarrekin.org/web/GenWeb">http://www.elkarrekin.org/web/GenWeb</a>

- Gurutze gorriaren forma duen ikonoak behin betiko ezabatzeko aukera ematen du. Kontuz! Bertan jasotako eduki guztia, foroak, albisteak eta abar desagertu egingo lirateke.
- Eskuineko geziaren bidez, webgunea kudea daiteke, honako aukera hauekin:



- ‘Webguneko lehentasunak’ aukerak webgunea lehenengoz sortzean aukeratu genituen atal guztiak aldatzeko aukera ematen du. “Edukiak” sakatuz, gure webgunearen zati nabigagarria egin dezakegu.



Edukiak karpitetan eta azpikarpitetan egituratzen dira, eta, horietako bakoitzean, web orri bat lantzen da.

- Karpeta bat sortzeko: [Atalaren alta] aukeratu, eta karpetaren izena idazten da.
- Maila berean dauden karpetak mugitzeko (igo eta jaitsi), ezkerreko geziak erabiltzen dira.
- Garrantzitsua da karpeta berri guztiak azken tokian jarriko direla kontuan hartzea eta, beraz, toki hori ez badagokie, geziak erabili beharko dira igotzeko. Ezkerreko



geziak erabiltzen dira.




- Eskuineko ikonoek karpeta izena aldatzeko, karpeta ezabatzeko eta beste karpeta batera mugitzeko (karpeten eta azpikarpeten egiturako beste maila batera) balio dute, hurrenez hurren.
- Behin karpeta bat sortuta, dokumentu bat lot dakioko. Horretarako eta karpeta batean sartu ondoren, (edo, hasierako orrialderako, hasierako menuan), [Web orriaren alta] aukeratu behar da.

Webguneko edukien kudeaketa


[Atzera] [Atalaren alta] **Web orriaren alta**

Hasierako menua / Helburuak

- Pantaila hau irekiko zaigu:



- Oraingoz lehen aukera ('Webgunea eginda dago...') alde batzera utziz, nahi dugun txantiloia aukeratu dugu –grafikoek oso ongi deskribatzen dute edukia– eta “Onartu” sakatu dugu.
- Jakina, sartu nahi ditugun testuak, grafikoak (hemen Argazki izenekoak), estekak edota dokumentuak prestatuta izan behar ditugu.
- Txantiloien erabilera oso erraza da: testu-editore txiki batzuk (txantiloia bakoitzak behar dituen adina) eta zein grafiko igo nahi ditugun adierazteko modua barne hartzen ditu.
- Izenburuaren atalean nahiz testuarenean, testua editatzeko aukera dago, iturria, tamaina eta formatua (letra lodia, etzana, azpimarratua eta abar) aukeratzuz; bai eta testua lerrokatzeko edo zenbakidun zerrendak edo binetak eta koloreak eta hiperestekak ezartzeko aukera ere.



#### Egin beharreko lana:

Gure ikasleek azkenaldian gelan ikusi dugun zerbaiten edukiak errepasatzeko balioko duen webgune bat prestatzea. Webgune erraz bat egin behar da, baina oso garrantzitsua da lana aldez aurretik prestatzea: izango duen egitura orokorra, erabiliko ditugun grafikoak eta testuak eta abar. Zure irakasleak jada prestatutako grafiko eta testu batzuk emango dizkizu, lana errazteko

#### Gehiago jakiteko:

Webgune-sortzaileak ikastaro honetan lantzen ez diren beste aukera batzuk ere baditu. Bertan sakontzeko, webgune-sortzailearen eskuliburua eman diezazuke irakasleak. <http://www.elkarrekin.org/elk/WebSoManuala.pdf> helbidean ere lor daiteke.

#### Egin beharreko lana:

Hurrengo saioa hasi aurretik eta hura prestatzearren:

1.- Begira itzazu Elkarrekin-en jarrita dauden web orriak (orri nagusia, “Elkarrekin-eko web orriak”); bereziki, ikastetxeren batekoak direnak.

2.- Elkarrekin-eko “estekak” atalean, “Ikastetxeak – Centros Educativos” delakoan, begiratu behar dituzun beste eskola eta institutu batzuen web orriak dituzu.

3.- Egin ezazu ibilbide bat beste hauetan zehar ere:

- a) Miguel de Cervantes LHI: <http://www.euskalnet.net/cervanteseskola/>
- b) Koldo Mitxelena BHI: <http://www.koldomitxelena.net/>
- c) Aben Hazam HI: <http://roble.pntic.mec.es/~ablanc3/>
- d) Alcorisa HI: <http://www.educa.aragob.es/cpalcori/>
- e) Zenbait ikastetxe: <http://www.proarabatic.org/prensa/gureAldizkariak.htm>
- f) Aixerrota BHI: <http://www.aixerrotabhi.net/>
- g) Amara Berri: <http://amaraberri.org/topics/intro/>
- h) Donapea BHI: <http://www.pnte.cfnavarra.es/ies.donapea/>
- i) Doña Jimena BHI: <http://www.jimena.com/>

Bestelakoak:

Ikastetxeen web orriak: <http://www.cnice.mecd.es/centros/>  
Kasu guztietan, apuntatu interesgarrienak iruditzen zaizkizun ezaugarriak.